

Merkataritza eta Globalizazioa



Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiarako material didaktikoa (DBH)

TROCAIRE

 **hegoa**
INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



Gidaliburu hau EducAcción proiektuaren barruan dago. Programa honen bitartez, Hegoak bi helburu bete nahi ditu: batetik, heziketa komunitatearen eta beste erakunde batzuen esku jartzea prestakuntza lanetarako laguntza materialak eta baliabideak; eta, beste alde batetik, mundu globalizatuan Garapenerako Hezkuntzak dituen erronkei buruzko gogoeta eta eztabaida prozesuak bultzatzea eta horren inguruko proposamenak egitea.

Proiektu hau babesten du:



Comisión Europea

Agiri hau Europako Erkidegoaren laguntza finantzarioarekin egin da. Gidaliburu honen edukia egileen erantzukizunpekoa da, eta inolaz ere ez da ulertu behar Europar Batasunaren jarrera islatzen duenik.

Edizioa eta egokitzapena:



Ekonomi Zientzien Fakultatea (UPV/EHU)
Lehendakari Aguirre etorbidea 83 • 48015 Bilbao
Tfnoa.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40
E-mail: hegoa@bs.ehu.es

Campus-eko Liburutegia, 138 kutxatila (UPV/EHU)
Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945 01 42 88 • Faxe: 945 01 42 87
E-mail: hegoa@vc.ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Lege-Zenbakia: BI-592-05
Euskarazko itzulpena: Labayru Ikastegia
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Jatorrizko edizioa:
Trade and Globalisation. A resource for Geography.
Trócaire. Dublin 2003.



Aurkibidea

Sarrera	5
Curriculum-arekiko erlazioa	6
Aurretiazko informazioa eta irakaslearentzako glosarioa	7
Munduko mapa	8

I. sekzioa

Interdependentzia eta Globalizazioa	9
1. ariketa: Interdependentzia	9
2. ariketa: Globalizazioa	10
3. ariketa: Protesta sozialak	13

II. sekzioa

Aukera berdintasunik gabeko jokalekua: merkataritza eta MMA	15
1. ariketa: Urrezko arauak	15
2. ariketa: Nork ezartzen ditu MMAren arauak?	16
3. ariketa: Katea komertziala	22
4. ariketa: Txirotasuna, Nekazaritza eta Merkataritza	24

III. sekzioa

Nazioz gaindiko konpainiak (TNC): nork irabazi, nork galdu, nork aukeratu?	27
1. ariketa: Nazioz gaindiko konpainiak (TNC): Haizea bezain askeak?	27
2. ariketa: Kirol oinetakoak –Nork ordaindu, nork irabazi?–	31
3. ariketa: Boterearen jokoa	32
4. ariketa: Jokabide kodeak	33
5. ariketa: Goazen idaztera!	35
Eranskina	36
Merkataritza-lotuak munduan	36
Materialak eta kontaktuak	37

Hegoaren aurkezpena

Hegoak eskerrak eman nahi dizkio Trôcaire elkarteari, material didaktiko interesgarri hau itzultzen uzteagatik. Gure iritziz, oso erabilgarria izango da, bai lantzen dituen gaiengatik, bai planteatzen dituen proposamen didaktikoen dinamismoagatik. Gida hau material malgu gisa dago pentsatuta, eta curriculumera erraz moldatzeko modukoa da. Liburuan aurkeztutako ariketa guztiak edo ariketetariko batzuk landuz gero, ikasleek globalizazioaren ezaugarriak ezagutuko dituzte, bai eta globalizazio horrek gure planetaren Iparraldeko eta Hegoaldeko hainbat pertsonarengan duen eragina ere.

Baina hori oso garrantzitsua izan arren, guretzat hori bezain garrantzitsua edo, beharbada, garrantzitsuagoa da argitalpeneko zenbait ariketaren bidez gazteek jokabide aktibo eta konprometitua hartzea eta aldaketa eragingo duten ekintza txikietan inplikatzeko.

Zuentzat ere –Hegoako taldea osatzen dugunontzat den bezala– proposamen interesgarria izatea espero dugu.



Sarrera

Material hau Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloan DBHko irakasle eta ikasleei laguntzeko prestatu da, gaur egun ekonomiaren garapen globalarekin eta merkataritzarekin zerikusia duten gaiak ezagutarazteko asmoz.

Material honen bidez, arlo honetan ikasleek egoerak aztertzea eta ekintzak garatzea nahi dugu. Era berean, ikasleek herrialdeen artean, erregionen artean eta gizataldeen artean bereizkeria eragiten duten merkataritza globalaren joerak ikustea nahi dugu. Ikasleak munduko herritar gisa bereizkeria horri aurre egiteko duten zereginaz konturatzeari ere nahi dugu.

Gaurkotasunezko zenbait gaik merkataritza globala eta garapena hobeto ezagutzeko bidea eskainiko digute. Gaion artean honakoak ditugu: **globalizazioa** eta **protesta sozialak** (1. sekzioa), **Munduko Merkataritza Antolakundearen** (MMA) zeregina (II. sekzioa), **Nazioz Gaindiko Konpainiak** (TNC), sarritan eskulana esplotatzeagatik salatzen dituztenak (III. sekzioa).

Nola erabili material hau

Material honetako ariketak beraiek bakarrik erabil daitezke, gai jakin bat lantzeko, edo beste material batzuekin batera, gai zehatz baten gainean sakontzeko.

Kontua ez da eskolan material guztia erabiltzea, baizik eta landu nahi dena kontuan hartuta, atalik garrantzitsuenak aukeratzea.

Adibidea

Gaia: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta garapen bidean dauden herrialdeak.

Ariketa nagusia: II. sekzioa: 2. ariketa.

Aukerako ariketak: II. sekzioa: 1. ariketa (sarrerako ariketa gisa), 4. ariketa (ezagutza sakonagoa izateko).

Trócaire elkarteak eskerrak eman nahi dizkie beheko hauei material hau egiten eskaini duten laguntasunagatik: Niamh Crowley, Urseline Convent, Waterford; Sandra Cullen, Maynooth; Clare Cuthbert & Stephen McCloskey, One World Centre for Northern Ireland; Jean Duffy, Sion Hill, Co. Dublin; Michael Grehan, Belvedere College, Dublin; Charlie Hayes, St Mary's High School, Midleton, Co. Cork; PJ White, Loreto College Crumlin, Dublin.



Curriculum-arekiko erlazioa

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia

Material hau DBHko lehen eta bigarren zikloen helburuak betetzen laguntzera dator, gazteei gure inguruan eragina dituzten prozesuak hobeto ezagutzeko baliabideak eskainiz. Ikasleei, garrantzia duten gaietan sartzeko aukera emango zaie, esate baterako, nazioarteko merkataritzan eta bereizkeria sozial eta ekonomikoan.

Lan egiteko ideiak

Bigarren mailako ekonomi jardueretan lehengaiak prozesatu egiten dira edo produktu prozesatuak berriro prozesatzen dira. (III. sekzioa: 3. ariketa).

Industria modernoak "aske" izateko joera dauka. (III. sekzioa: 1. eta 2. ariketak).

Interes gatazkak sor daitezke industria sektorearen eta beste sektoreen artean. (III. sekzioa: 1., 2. eta 3. ariketak).

Historikoki, estatu garatuak esplotatu egin dituzte hain garrantzitu ez daudenak. Gaur egun ere, estaturik aberatsenak munduko merkatuak menperatzen dituzte eta, horrela, estaturik pobreenek arazoak dituzte ekonomikoki garatzeko. (II. sekzioa: 3. eta 4. ariketak).

Desberdintasun ekonomikoak nola konpondu beharko liratekeen erabakitzeke orduan zailtasunak daude. (II. sekzioa: 4. ariketa; III. sekzioa: 1. eta 2. ariketak).

Gertakari, kontzeptuak eta printzipioak

Interdependentzia. (I. sekzioa: 1. eta 2. ariketak).

Parte-hartzea. (I. sekzioa: 3. ariketa; III. sekzioa: 4. eta 5. ariketak).

Eskubideak eta erantzukizunak. (II. sekzioa: 1. eta 4. ariketak).

Garapena. (II. sekzioa: 3. eta 4. ariketak; III. sekzioa: 1. ariketa).

Zuzenbidea. (II. sekzioa: 1. eta 2. ariketak; III. sekzioa: 4. ariketa).

Mundu garapena. (II. sekzioa: 3. eta 4. ariketak; III. sekzioa: 1. ariketa).

Merkataritza harremanak dituzten nazioen arteko desorekak eta bizitza maila desberdinak.

Euskadiren interdependentzia fisiko eta ekonomikoa Espainiako estatuaren barruan eta beste leku batzuei dagokienez. (I. sekzioa: 1. ariketa)

Ekintzarako proiektuak

I. sekzioa: 3. ariketa: Globalizazioa eta protestak.

II. sekzioa: 2. ariketa: MMA ikertu.

III. sekzioa: 5. ariketa: Nazioz gaindiko enpresei idatzi.

Prozedurak

Bigarren mailako iturrietatik informazio garrantzitsua ateratzea.

Datuak modu egokian zehaztu eta aurkeztea.

Datuak deskribatzea begi bistako eredu eta harremanak aztertuz.

Jarrera, balio eta arauak

Gizabanako, talde, erakunde eta gobernuek arloan duten jokabidea tokiko, nazio mailako eta nazioarte mailako komunitateetan baloratzea.

(II. sekzioa: 1., 2. eta 3. ariketak;

III. sekzioa: 1. eta 3. ariketak).

Nazioz gaindiko konpainiek ekonomia arloan duten jokabidea baloratzea. (III. sekzioa: 1., 2. eta 3. ariketak).

Beren jarduera ekonomikoen eta jokabidearen eragina ezagutzea. (III. sekzioa: 2. eta 5. ariketak).

Ikusi nola neska-mutilek berenganatzen duten kultura eta bizimodua inguruaren eta mundu osoaren eraginpean dagoen. (I. sekzioa: 1. ariketa).

Garapen arloko gaien azterketaren bidez, erabakiak hartzeko prozesuak ezagutu eta esperimintatu, eta norbere erabaki eta jokabideen erantzukizuna hartzeko beharrianaz konturatu.

(III. sekzioa: 2. eta 5. ariketak).

Aurretiazko informazioa eta irakaslearentzako Glosarioa

Zer da globalizazioa?

Norbanakoen, taldeen, enpresen eta herrialdeen arteko harremana eta trukea areagotzen duen prozesua da globalizazioa, eta aldaketa teknologiko, ekonomiko eta politikoei eragindakoa da prozesu hori.

Globalizazioaren etekinak bidegabe banatu dira. Ahulenak eta txiroenak galtzaile ateratzen dira gehienetan. Esate baterako, garapen bidean dauden herrialdeetako nekazariak ezin dira atzerriko inportazioekin lehiatu, eta, horrela, beren bizibidea galdu dute. Industriako langileak ere mehatxatuta daude, izan ere, konpainiak produkzio kostuak merkeagoak diren lurraldeetara eta lan eskubideak errazago urratzen diren herrialdeetara joaten dira. Hala ere, globalizazioak, justizia eta garapen iraunkorra sustatzeko, mundu osoko mugimendu sozialak batzeko aukera ere ematen du.

Zer da Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA)?

Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) nazioarteko merkataritzaren arauak adosten dituen herrialdeen foroa da. MMA 1995eko urtarrilaren 1ean eratu zen. Erakunde horrek Merkataritzari eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusia (GATT) ordeztu zuen. Akordio hori bigarren mundu gerraren ondoren egin zen herrialdeen arteko merkataritza hesiak gutxitzeko asmoz.

Gaur egun, 142 herrialde dira MMA erakundearen kide. Teorian herrialde guztiek dute garrantzi bera MMA-n, baina herrialde aberatsek agintzen dute praktikan, izan ere, negozioazio ahalmen eta botere handia dute eta merkataritza arloko aditu asko kontratatu ditzakete beren interesen alde lan egiteko. Herrialde pobreek, ostera, ez dute ahalmenik beren onerako izango liratekeen arauak proposatu eta defendatzeko.

Zergatik da garrantzitsua merkataritza garapen bidean dauden herrialdeentzat?

Merkataritza oso garrantzitsua da herrialde pobreetzat, izan ere, merkataritzaren bidez lortzen dituzte diru-sarrerarik gehienak eta motor garrantzitsua da beren ekonomien hazkunderako. Eta hazkunde ekonomikoak ahalbidetu egiten du azpiegitura eta zerbitzuetan baliabide gehiago inbertitzea. Martxan jarritako politiken helburuak osasun eta hezkuntza sistema hobetzea eta mundu guztiarentzat lan aukera egokiak bultzatzea izango balira, jendearen bizi-kalitatea hobea izango litzateke. Munduko hamar pobreetarik zazpiren bizibidea nekazaritza denez, nekazaritza arloko merkataritzan akordio eraginkorra lortuz gero, jende asko aterako litzateke pobreziatik mundo osoan.

Glosarioa

Merkataritzaren liberalizazioa. Filosofia politiko honen arabera, merkatuko indarrak arautzerakoan, ahal den neurrian, gobernuen interferentzia ahalik eta txikiena izan behar da.

Nazioz gaindiko konpainiak (TNC). Nazioz gaindiko konpainiak dira negozioak herrialde baten baino gehiagotan ezartzen dituztenak. Merkataritzaren liberalizazioaren bidez, konpaini hauek etekin handiagoak lortzen dituzte, izan ere, lana eta lehengaia lekuri merkeenetan lortzen dute eta produktuak merkatu askotan saltzen dituzte.

Subentzioak. Subentzioak dira gobernuak egiten dituen diru-laguntzak sektore baten produkzioaren kostuak gutxitzeko. Zenbait herrialdeetan, gobernuak nekazariei subentzioak ematen dizkiete, hazien, garraioaren, ongarrien eta abarren gastuak estaltzeko.

Dumping. Dumping gertatzen da produktuak produkzio kostuaren azpitik saltzen direnean merkatuan saltzean.


Segurtasuna jatekoetan. Honek esan nahi du mundu guztiak eskura deza-keela jateko seguru eta nutritiboa, bizitza aktibo eta osasuntsua eduki ahal izateko.

Aduana-zerga. Merkantzia inportatu eta esportatuei jartzen zaizen zerga da; horrela, horien prezioak gora egiten du.

Merkataritza hesia. Gobernuak inportazio eta esportazioak mugatzeko erabiltzen dituzten kuotak, bahiturak, aduana-zergak eta arau teknikoak dira.

Informazio koadroak

MMAri buruz: 21. orrialdea Txirotasuna, nekazaritza eta merkataritza: 26. orrialdea
Nazioz gaindiko konpainiak: 30. orrialdea Jokabide kodeak: 34. orrialdea



Peters-en proiektzioak benetako tamaina eta kokapenaren arabera islatzen ditu herrialdeak (Iturria: Exploring our World, 2001).



I. sekzioa

Interdependentzia eta Globalizazioa

Helburuak

Interdependentzia eta globalizazioa kontzeptuak aztertzea

Ikasleei nazioarteko merkataritzan honako eragileek jokatzen duten papera hobeto ulertzen laguntzea: herrialde garatu eta garapen bidean daudenak; Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA), Nazioz gaindiko konpainiek eta kontsumitzaileek.

I. Ariketa: Interdependentzia

Helburu didaktikoa

Ariketa honen bidez, ikasleek eztabaidatu egin ahal izango dute merkataritzaren bidez beste herrialde batzuekin eta beste jende mota batekin konektatuta gauden modu desberdinei buruz, kultur trukeari buruz eta gai honen inguruko beste gai batzuei buruz. Era berean, ariketa honek bultzatu egin nahi ditu ikasleak gai honekin lotutako alderdi positiboak eta negatiboak buruz eztabaidatzera. Ariketa honetan, irakasleak neurtu egin ahal izango du ikasleek interdependentziarekin eta globalizazioarekin zerikusia duten gaien gainean duten kontzientziak eta ulermen maila.

Prestaketa/Materialak

Peters-en proiektzioaren munduko maparen fotokopia (8. orrialdea) talde bakoitzarentzat.

Lehenengo fasea

Banatu klasea hiru edo lau taldetan.

Banatu munduko maparen fotokopiak talde bakoitzari.

Eskatu talde bakoitzari azal ditzan, beste herrialde batekoak izanik, jendeak normalean erabiltzen dituen edo gustuko dituen gauzak, eta ez bakarrik ondasun materialak, ezpada gustuko dituzten musika motak edo kirolariak ere.

Talde bakoitzak mapan lerroak marraztuko ditu norberaren herrialdeak erabiltzen dituzten produktuak produzitu edo egiten diren lekuetarako, edo gustuko dituzten musika-moten edo kirolarien herrialdeetarako. Ikasleek koloretako arkatzak erabil ditzakete lerro desberdinak bereizteko.

Eskatu talde bakoitzari erakutsi diezaiola bere mapa klase guztiari, eta azal ditzatela egin dituzten loturarik ohikoak (esate baterako, kirolariek Txinatik) eta loturarik bitxiak (adibidez, lagun batzuek Afrikatik, oporretatik, ekarri dizkieten entsalada zerbitzatzeko tresnak).

Eztabaidatu taldearekin munduan orokorrean ditugun lotura eta konexioen inguruan. Galdetu ikasleei ea oraintsuko fenomenoak den uste duten. Denborarekin gehiagora egin du?, eta horrela bada, zergatik?

Pasatu bigarren fasera.

Bigarren fasea

Irakurri ahots goran hurrengo testua eta eskatu talde bakoitzari galderen gainean eztabaidatu dezaten. Eman 5-10 minutu eztabaidatzeko.


“Demagun, bat-batean, Euskadiko eta Espainiako portu eta aireportu guztiak itxi egiten direla; munduarekiko komunikabide guztiak, hau da, telefonoa, telebista, irratia, posta elektronikoa eta Internet, ebaki egiten direla; herrialde honetan, bertan produzitzen denarekin egin behar dela aurrera esaten duela gobernuak. Mundu guztia ados dago, izan ere, norbere buruaz arduratzea ideia ona dela uste dute”.

- Ze eragin izango luke egoera honek zugan?
- Zeri eragin beharko zenioke uko?
- Ze eragin izango luke gizartean orokorrean?
- Ze arlotan aterako ginateke galtzaile?

Erabili galdera horiek klasean eztabaida pizteko, talde desberdinen erantzunak jasoz.

Munduko gizarte eta herrialdeen artean gero eta lotura eta interdependentzia handiagoa dagoela erakusten duten adibideak eman: merkataritzan, ideia eta informazio trukean, leku desberdinetako pertsonen arteko harremanetan bidaien eta komunikazio elektronikoen bidez, kultur arloan, esaterako, musikan, kirolean eta abar.

Amaizteko, eman ideia orokor bat: esan interdependentziak, mundu osoko gobernu eta herritar guztientzat, aukera asko eskaintzen dituela; bai eta zenbait arrisku eta ardura ere.



2. Ariketa: Globalizazioa

Helburu didaktikoak


Ariketa honen helburua da ikasleek hobeto ulertzea, batetik, globalizazio kontzeptua, eta, bestetik, globalizazioan irabazleak eta galtzaileak izaten direla; indartsuenek ahulenen baliabideak esplotatzen dituzte, eta, horrela, azken batean, ahulenek ezin dituzte aprobetxatu merkataritzak eta komunikazioak eskaintzen dituzten aukerak.

Prestaketa/Materialak

Orri handi bi edo arbela bat. Idatzi “Irabazleak” orrietako baten goialdean edo arbelaren alde batean. Idatzi “Galtzaileak” beste orrian edo arbelaren beste aldean.

Ohiko tamainako “Post-it” orriak.

Koadroen fotokopiak: koadro bat taldeko.



Lehenengo fasea

Ideia jasa – Eskatu ikasleei: “Esan munduko beste leku batetik datozen eta egunero erabiltzen dituzun gauzak”.

Galdetu ikasleei: Zer uste duzue esan nahi duela jendeak “globalizazioa” aipatzen duenean.

Eman globalizazioaren definizio hau:

Globalizazioak erakusten digu nola ondasunak, dirua eta ideiak inoiz baino arinago eta merkeago mugitzen diren munduan zehar. Hori, batez ere, garraioaren eta teknologiaren garapenaren ondorio dugu, bai eta herrialdeak beste herrialde batzuekin merkataritza harremanak izateko irekiago daudelako ere.

Adibidez: Gasteizen erositako kamiseta baliteke Estatu Batuetan diseinatu izana; kotoia, beharbada, Egiptokoa izango da; agian, Bangladeshen ebakiko zen, Vietnamentan josi eta Londresera eramango zuten, gero, furgoneta batean Gasteizera eraman eta salgai jartzeko.

Azaldu globalizazioak modu desberdinean eragiten diola jendeari: batzuentzat ona da eta beste batzuentzat, ordea, txarra. Esan globalizazioak **aukerak** eskaintzen dituela eta galdetu zeintzuk izan litezkeen aukera horiek (esate baterako: jendearen arteko komunikatzeko aukerak).

Globalizazioak eragin **negatiboak** izan litzake? (esate baterako: konpainiak oztoporik gabe ibil daitezke munduan zehar eta lan kostuak merkeagoak diren lekuetarantz jotzeko aukera dute).

¹ Hegoaren oharra: Globalizazioak produktu eta salgaien joan-etorria errazten du, pertsonen joan-etorri libreari, berriz, ostopoak jartzen dizkio.

Bigarren fasea

Banatu ikasleak bikoteka.

Eman bikote bakoitzari 12. orrialdeko 1 eta 6a bitarteko koadro bat.

Eman bikote bakoitzari 4-6 "Post-it".

Eskatu bikote bakoitzari koadroan daukana irakurtzeko, eta eztabaidatu dezatela ondoko galderen gainean:

"Nortzuk dira irabazleak eta galtzaileak hemen deskribatutako egoeran?"

Oharra: beharbada azaldu egin nahiko duzu irabazle eta galtzaile erlatiboak daudela. Hau da, batzuek beste batzuek baino askoz gehiago aprobetxatzen duten globalizazioa. Globalizazioarekin pertsona batzuen bizi-kalitateak gora egiten duen bitartean beste batzuenak, aldiz, behera egiten du.

Ikasleak amaitutakoan, eskatu erantzunak "Post-it" orrietan idazteko –erantzun bat edo gehiago, balego, bai irabazleentzat bai galtzaileentzat-. Gero orri handietan edo arbelean itsatsiko dituzte.

Bikote bakoitzak, bukatu duenean, ikaskideak hurbiltzera gonbidatuko ditu (taldeka errazagoa bada) eta "Post-it" orrietan jartzen duena irakurtzeko eskatuko diete.

Ikasle guztiek erantzunak ikusi ondoren, eskatu bikote bati azaltzeko zer idatzi duten "irabazleak" epigrafearen azpian eta zergatik. Galdetu koadro bera zuen beste bikote bati ados dauden edo ez. Galdetu beste bikote horri zer idatzi zuten "galtzaileak" epigrafearen azpian eta zergatik idatzi duten hori.

Errepikatu prozesu bera koadro guztiekin.

Amaitutakoan, azaldu globalizazioa ez dela berez "txarra" edo "ona", baizik eta eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeko gaitasunaren menpe dagoela hori, hau da, pobreak eta botere faltak probetxurik ezin ateratzea dakarte.

Irakaslearentzako oharra

Ikasleek interes berezia erakusten badute koadroetariko baten gainean, honako ariketa hauekin jarrai dezakezu.

2. koadroa: "Mundu mailako publizitatea": III. sekzioa, Nazioz gaindiko konpainiak (1. eta 3. ariketak).

3. koadroa: "Merkataritza haziz doa": II. sekzioa (3. eta 4. ariketak).

4. koadroa: "Arau globalak": II. sekzioa (1. eta 2. ariketak).

1. Komunikazio globalak

Gero eta merkeago eta errazagoa da komunikatzea. Jakek, New Yorketik, Tolosako lehengusuekin telefonoz hitz egin dezake, ordua 35 dolar zentabo ordainduta. Duela hamar urte, dei berak 3 dolar/ordua balio zuen. 1930ean, Jakeren aitita Tolosatik lehenengoz Amerikara joan zenean, deitu izan balu 245 dolar/ordua ordaindu behar izango zukeen. Bestetik, Kathyk, Estatu Batuetakoak, hilabeteko soldata aurrezten badu, merkatura ateratako azken ordenagailua eros lezake. Bangladesheko langile batek, berriz, zortzi urteko soldatak aurreztu beharko lituzke ordenagailua erosteko. Jakek eta Kathyk, interneten sartzean, 5 web orritatik 4 uler ditzakete, ingelesez daudelako. Hala ere, munduko hamar pertsonetarik 9k ez dute ingelesa ulertzen.

2. Mundu mailako publizitatea

Mundu guztian zehar ikus daitezke Coca-Cola eta Levi's marken iragarkiak, hasi Madril edo Berlinen, eta Buenos Aires edo Pekineraino. Nike markak, esate baterako, 1987an 25 milioi dolar gastatu zituen publizitatean eta 1997an, ordea, 500 milioi dolar. Tiger Woods golf jokalaria 55.555 dolar kobratzen ditu egunean Nike produktuen publizitatea egitearren. Nike produktuak egiten dituzten Indonesiako langileek 1,25 dolar inguru jasotzen dute egunean. Egun batzuetan hori ez da nahikoa bizi ahal izateko.

EROSI ORAIN!

3. Merkataritza haziz doa

Gaur egun itsasontziz edo hegazkinez duela hogeita urte baino hiru bider merkantzia gehiago bidaltzen da. Merkataritzak lanpostuak sor ditzake herrialde txiroetan, baina, sarritan, herrialde horietako lan baldintzak negargarriak izaten dira. Banana, kafe eta landare sailetan, esate baterako, langileek soldata oso txikiak jasotzen dituzte, ordu asko lan egiten dute eta pestizida eta produktu kimiko arriskutsuak erabili behar dituzte. Herrialde batzuk merkataritzak ematen ditzakeen onuretatik erabat kanpo geratzen dira: 48 herrialderik pobreenak atzean geratzen ari dira eta merkataritzatik askoz diru gutxiago irabazten ari dira herrialderik aberatsenekin alderatuz gero.

4. Arau globalak

Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) herrialdeen arteko merkataritza arauak ezartzeko eta herrialde guztiek beteko dituztela ziurtatzeko eratu zen. Hori oso ondo egongo litzateke, bidezko arauak izanez gero, mundu guztia aterako litzatekeelako irabazle. Baina, hala ere, arauak herrialderik aberatsenen onerako daude eginda. Hori horrela da herrialde aberatsek arau horiek idatzi eta defendatzeko abokaturik onenak ordain ditzaketelako eta txiroek, oster, ezin dute horrelakorik egin. Esate baterako, Japonen 25 merkataritza aditu ditu MMA erakundean. Bangladeshek bat baino ez dauka eta herrialde txiroetatik 29tik batere ez dauka. Egunean hamar batzar ere izan daitezke, eta herrialde txiroak ezin dira batzar guztietara joan; horrela, erabakirik garrantzitsuenak herrialde horien interesak kontuan hartu barik hartzen dira.

5. Bidaia eta turismoa

Oporretan atzerrira joatea interesgarria eta zirraragarria ere izan daiteke. Jendeak atzerriko herrialdeetako lagunak egiten ditu eta beste pertsona batzuen eta, orokorrean, munduaren gaineko gauza interesgarri asko deskubritu ditzake. Hala ere, askoren ustez, turismoak alde negatiboa ere izan dezake. Herrialde askotan, bertako jendeak jantzi eta bitxi ederrak jantzen ditu, adibidez, Keniako Masai artzainak. Batzuetan, turistek bertako jende hori objektu gisa har dezakete, hau da, argazkiak ateratzeko modeloak balira bezala, sentitu eta hitz egiten duten gizaki gisa hartu beharrean.

6. Komunikabideak

Telebista, pelikula, irratia eta egunkariak lagungarriak izan daitezke jendeari beste herrialde batzuetan gertatzen ari dena eta hango bizimodua nolakoa izan daitekeen ikusten laguntzeko. Baina, bestetik, komunikabideek beste herrialde horien irudi faltsua ere eskain dezakete. Esate baterako, Indian, jende askok uste du Europako eta Estatu Batuetako bizimodua pelikuletan agertzen den bezalakoa dela, hau da, denak direla aberatsak eta bizimodu zirraragarria daramatela. Bien bitartean, Afrikari buruzko berrietan sarritan agertzen da goseak hilik eta etsita dagoen jendea. Alabaina, aurreko guztia errealtatea bada, ez da errealtate txikiagoa Afrikako komunitate eta herri ugartan beren bizi-baldintzak hobetzeko aurrera daramaten borroka. Hori ere erakutsi behar da, hainbat gogo eta asmo, hainbat grina eta borroka, hainbat alderdi baikor oso gutxitan ikustarazten dena.

3. Ariketa: Protesta sozialak

Helburu didaktikoa

Ariketa honetan agerian geratzen da jendeak aldaketak eragin ditzakeela, bai bere inguruan bai mundu osoan, bidegabeke-rien kontra protesta egiteko batuz gero. Ikasleek sarritan pentsatzen dute aldarrikapen garrantzitsuen kasuan protestek azke- nean ez dutela arrakastarik izaten; kasu honetan, oso garrantzitsua da arrakasta izan duten protestak nabarmentzea, esate baterako, Arma Arinen Kontrako Nazioarteko Sareak martxan jarritako “Agur armak” kanpaina (15. orrialdea) edo Pertsonen Aurkako Minak debekatzeko nazioarteko kanpaina (www.intermonoxfam.org).

Prestaketa/Materialak

Orri handiak eta errotuladoreak klasearen bigarren saiorako.

Aukerakoa: “Protesta arrakastatsuak” testuen kopiak (14. orrialdea).

Lehenengo fasea

Galdetu klasean ea gogoratzen diren, aspaldi edo oraintsu, berton inguruan edo atzerrian, jendea gai zehatz baten kontra protesta egiteko batu den. Nortzuek egin zuten protesta? Zergatik?

Adibideak

Mundu mailako protestak: Ginoa, 2001eko uztaila, G8 deritzon taldearen batzarra (Kanada, Frantzia, Alemania, Italia, Japonia, Errusia, Erresuma Batua eta Estatu Batuetako buruzagiak). 200.000 lagun baino gehiagok protesta egin zuten Hirugarren Munduak duen zorraren kontra, langileen eskubideen alde eta abar.

Tokian tokiko protestak: ingurumen gaiak, azpiegiturak garatzeko proiektuak (errepide eta presen eraikuntza, errauskai- luak...) eta abar. Eman ezazu zure inguruko adibide bat.

Iraganeko protestak: Milaka lagunek egin zuten protesta Garoñako zentral nuklearraren aurka, Estatu espainola NATO n sartzear- ren kontra, derrigorrezko soldadutzaren aurka...

Banatu klasea 3 edo 4 talde txikitan. Eskatu talde bakoitzari adi entzuteko zuk ahots goran irakurtzen duzun bitartean: “Justiziaren alde kanpaina egiten” (14. orrialdea).

Eskatu talde bakoitzari aukeratzeko gehien interesatzen zaion protesta, jar daitezela ados (beharbada gaia aztertu beharko dute, eta, gero, ados jarri).

Azal iezaiezu ikerketaren bat egin beharko dutela protesten gai- nean, jarduera osagarri gisa.

Esan informazio poster bat sortu beharko dutela aukeratzen duten proiektuaren gainean.

Honako galdera hauek erantzuten ahalegindu beharko lirateke:

- Noiz izan zen protesta? Non? Zergatik?
- Zer nahi zuen protestaka zebilen jendeak?
- Zer lortu zuten?

Taldeek ikerketa plan bat egin beharko dute eta tal- dekideen artean ardurak banatu, pertsona ba- koitzak zeregin bat izan dezan.

Eman ikasleei jarraibide hauek informazioa eta ideiak bila ditzaten:

- Eskatu gurasoei/neba-arrebei/lagunei lagungarri izan daitezkeen ideiak.
- Egunkariak eta aldizkariak.
- Hirian dauden kartelak (hiri-gune handietan).
- Web orriak (ikusi 37. orrialdea).

Bigarren fasea

Hurrengo klasean talde bakoitzeko kideak batu egingo dira informazioa bateratzeko, eta, orri handi batean, protestaren gai- neko posterra sortzeko. Ikasleek artikulatuak, titularrak, irudiak, marrazkiak, etab. erabili ahal izango dituzte gaia ilustratze- ko.

Talde bakoitzak posterra aurkez dezala. Eskatu ikasleei protestetatik gustatu zaizkien gauzak aipatzeko. Galdetu protestetan



Justiziaren alde kanpaina egiten

Mundu osoko jendea batzen ari da aldaketaren aldeko kanpaina egiteko.

Brasilen lur barik gelditu diren milaka lagunek manifestazio erraldoiak egin dituzte lurra izateko eskubidea aldarrikatzeko. Internet bidez jendeak protesta horien berri izan dezake, eta, horrela, elkartu eta justiziaren alde lan egin. Hogeita lau milioi lagunek sinatu zuten Jubileo 2000 izeneko nazioarteko aldarrikapena, herrialde txiroen zorra kentzeko eskatuz. Protesta erraldoiek, esate baterako Munduko Merkataritza Antolakundeak egindako bileren inguruan antolatzen direnek, munduko buruzagiek zenbait arazo kontuan hartzea eragin dute, esate baterako, kanpo zorra, pobrezia, ingurumena, giza eskubideak edo bidezko merkataritza.

Mundu osorako antolatu diren hainbat kanpaina arrakastatsu izan da: herrialde aberatsak herrialderik txiroenen zenbait zor kitatu dituzte eta minak mundu osoan debekatzea lortu da. Porto Alegren egindako Foru Mundialean bezalako jarduerak eztabaidarako eta herritarren partaidetzarako esparru oso aproposak dira.



PROTESTA ARRAKASTATSUAK

Kanpainak: “Agur armak” eta “sekretu batzuek hil egiten dute”

Intermon Oxfamek 1995etik hona beste erakunde batzuekin batera lan egiten du arma merkatuaren gaineko eta Espainiak egiten dituen arma esportazioen gaineko gardentasuna eta kontrola eskatzeko kanpainetan. Hain zuzen ere, urte horretan, Amnesty International, Greenpeace eta Mugarik Gabeko Medikuek erakundeekin batera, **“Sekretu batzuek hil egiten dute”** kanpaina jarri zuten martxan. Kanpaina horren bidez, 1997an Diputatuen Kongresuan ez-legezko proposamen bat onartu zen, Gobernuak sei hilabeterik behin Parlamentuari baimendutako armen transferentzien berri eman diezaion.

Hurrengo kanpaina, **“Agur Armak”**, 1999an hasi zen eta, nazioarte mailan, Arma Arinen kontrako Nazioarteko Sarearekin (IANSA) lotu zen. Kanpaina horrek esportazioen kontrol handiagoa bultzatu zuen, Europar Batasunak 1998an hartutako Jokabide Kodeko irizpideen arabera. 2001eko abenduan, ez-legezko proposamen bat onartzea lortu zen. Proposamen horretan gobernuari armen transferentziari buruzko informazioa jasotzen duten sei hileko txostenak hobetzeko eta Europar Batasuneko Jokabide Kodea zehatz betetzeko eskatzen zaio.

Era berean, Intermon Oxfam, 1996tik hona, Minak Debekatzeko Nazioarteko Kanpainako (ICBL, ingelesezko siglak) partaidea da eta Estatu espainolean **“Vidas Minadas”** kanpaina bultzatu zuen. Nazioarteko kanpaina horri esker, Ottawako Prozesua jarri zen martxan eta prozesu horretatik, 1997an, Pertsonen Kontrako Minak Debekatzeko Tratatu atera zen.